

Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

830

AGINDUA, 2009ko azaroaren 12koa, Justizia eta Herri Administraziozko sailburuarena, Mintzola Fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Azertu dugu Villabonako (Gipuzkoa) Mintzola Fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskaeraren espedientea, ondorengoetan oinarrituta:

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Gipuzkoako Foru Aldundiak (Hurrengoek ordezkaturak: María Jesús Aranburu Orbegozo andreak, Kultura eta Euskara Departamentuaren Foru Diputatu gisa; Haritz Solupe Urresti jaunak, Sustapeneko eta Hedapeneko Zuzendari Nagusi gisa; Estibaliz Alkorta Barragan andreak, Euskarako Zuzendari Nagusi gisa; eta Xabier Huitzi Belamendia jaunak), Villabonako Udalak (Maixabel Arrieta Gallarraga andreak ordezkaturak, Alkatesa gisa), Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak (Joseba Iñaki Murua Jauregi jaunak ordezkaturak), eta Euskal Herriko Unibertsitateak (Ludger Karl Paul Mees jaunak ordezkaturak, Euskara Errektoreorde gisa) Mintzola Fundazioa eratu zuten, Donostian, 2008ko abenduaren 12an, Donostiako Eduardo Clausen Zubiria notario jaunaren aurrean egiletsitako eskritura publikoaren bidez (protokolo-zk.: 1069).

Inskribatzeko eskabidea 2008ko abenduaren 19an aurkeztu zen. Dokumentazioa aztertu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko zerbitzu teknikoek 2009ko ekainaren 12an Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen Laugarren Xedapen Gehigarriaren 2.b) atalak aipatzen duen justifikazioa egiaztatzeke errekerimendua egin zioten. Honi erantzunez, 2009ko uztailaren 17an María Jesús Aranburu Orbegozo andreak bidalitako bi txostenei sarrera ematen zaie: Bata Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen Normalkuntza eta Sustapen Zerbitzuko buruak egindakoa; eta bestea OPE Consultores enpresak egindakoa, Mintzolarentzako figura juridiko eta antolaketa egituraren proposamenari buruzkoa. Biek osatu egiten dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluko Idazkariak egindako ziurtagirian jasotzen den aipamena, eratze tituluan ere jasotzen dena (aipamen hori Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen laugarren

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

830

ORDEN de 12 de noviembre de 2009, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se inscribe en el Registro de Fundaciones del País Vasco la denominada Mintzola Fundazioa.

Visto el expediente por el que se solicita la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco de la denominada Mintzola Fundazioa, de Villabona (Gipuzkoa), sobre la base de los siguientes:

ANTECEDENTES

Primero.– La fundación Mintzola Fundazioa fue constituida en San Sebastián por las siguientes entidades: la Diputación Foral de Gipuzkoa (representada por: Dña. María Jesús Aranburu Orbegozo, Diputada Foral del Departamento de Cultura y Euskera; D. Haritz Solupe Urresti, Director General de Promoción y Desarrollo; Dña. Estibaliz Alkorta Barragan, Directora General de Euskera; y D. Xabier Huitzi Belamendia), el Ayuntamiento de Villabona (representado por su alcaldesa Dña. Maixabel Arrieta Gallarraga), la asociación Euskal Herriko Bertsozale Elkartea (representada por D. Joseba Iñaki Murua Jauregi) y la Universidad del País Vasco (representada por D. Ludger Karl Paul Mees, Vicerrector de Euskera). La constitución fue formalizada mediante escritura pública otorgada el 12 de noviembre de 2008, ante el notario de San Sebastián D. Eduardo Clausen Zubiria (número de protocolo: 1069).

La solicitud de inscripción fue presentada el 19 de diciembre de 2008. Una vez analizada la documentación presentada, el 12 de junio de 2009 los servicios técnicos del Registro de Fundaciones del País Vasco requirieron la acreditación de la justificación prevista en el punto 2.b) de la disposición adicional cuarta de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco. En respuesta a dicho requerimiento, con fecha 17 de julio de 2009 se dio entrada a dos informes remitidos por Dña. María Jesús Aranburu Orbegozo: uno, librado por el jefe del Servicio de Normalización y Promoción del Euskera de la Diputación Foral de Gipuzkoa; y otro, elaborado por la empresa OPE Consultores, sobre propuesta de estructura organizativa y figura jurídica para Mintzola. Ambos informes vienen a completar la mención que consta en la certificación expedida por la Secretaria del Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Gipuzkoa e incorporada en el título constitutivo, de que constan en el expediente los informes y las memorias a que

xedapen gehigarriak aipatzen dituen txosten eta memoriak espedientean jasotzeari buruzkoa da).

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Aholku-Batzordeak, Batzorde Tekniko moduan bilduta, fundazioaren xedeen zilegitasuna eta interes orokorra egiaztatzeko helburuarekin, 2009ko urriaren 19an, erregistroan inskribatzearen aldeko txostena ematen du.

Bigarrena.– Hona Mintzola Fundazioaren helburuak, Estatutueta 3. artikulua ezarritakoaren arabera:

Fundazioaren helburu da euskarazko ahozko tradizioaren behatoki dinamikoa izatea, eta gizarteak dituen ahozko komunikazio premiei erantzun egokia ematea. Bi egiteko hauen arteko ezinbesteko zubia ikerketa izango da, eta ondorioz, ahozkotasanaren ikerketa Mintzola Fundazioaren zeregin nagusia izango da.

Zeregin hori lau ardatz nagusien bitartez garatuko dela aurreikusten da, eta hura osatuko dute bai oinarritzko ikerketak, bai ikerketa aplikatuak ere, eta bere hedapenak; haiek guztiak fundazioaren Estatutueta 3. artikuluan garatzen dira.

Hirugarrena.– Fundazioaren helbidea, Estatutueta 5. artikuluan ezarritakoaren arabera, Villabonan (Gipuzkoa) egongo da, eta hau izango da: Subijana etxea. Kale Nagusia, 70.

Laugarrena.– Hasierako dotazioa hogeita hamar mila eurokoa da (30.000 euro), eta diru hori jarri dela agiri bidez egiaztatu da fundazioa erregistroan inskribatzeko espedientean, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuko 37.1.c artikuluaekin bat etorriz.

Ondare-dotazioa egokitzat eta nahikotzat jotzen da fundazioaren helburuak betetzeko, aplikatzekoa den Fundazioei buruzko abenduaren 26ko 50/2002 Legeko 12.1 artikuluaaren arabera, eta azken xedapeneta 1.ari jarraiki.

Bosgarrena.– Fundazioa gobernatzea, administratzea eta ordezkatzeko Patronatuari utzi zaizkio. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, Fundazioaren Estatutueta 9. artikuluan jartzen duen moduan.

Seigarrena.– Ondorengo haiek osatuko dute hasierako Patronatua, fundazioaren eratze-eskirituran eta fundazioaren Estatutueta 10. artikuluan ezartzen den moduan:

se refiere la Disposición Adicional Cuarta de la Ley 12/1994, de 17 junio, de Fundaciones del País Vasco.

Reunida la Comisión Técnica de la Comisión Asesora del Protectorado de Fundaciones del País Vasco con la finalidad de verificar la licitud e interés general de los fines fundacionales, emite, con fecha 19 de octubre de 2009, informe favorable a su inscripción registral.

Segundo.– Los objetivos fundacionales de la denominada Mintzola Fundazioa, según establece el artículo 3 de su norma estatutaria son:

El objetivo de la Fundación es constituirse en un observatorio dinámico de la tradición oral en euskara y ofrecer una respuesta adecuada a las necesidades comunicativas orales de la sociedad. La labor investigadora será el nexo de unión obligatorio entre estos dos objetivos, por lo que la principal función de la fundación Mintzola Fundazioa será investigar la expresión oral.

Esta función se desarrollará sobre cuatro ejes fundamentales y estará complementada por la investigación, tanto básica como aplicada, y su difusión; todo ello queda desarrollado en el artículo 3 de los estatutos fundacionales.

Tercero.– El domicilio fundacional, conforme dispone el artículo 5 de los Estatutos fundacionales, queda fijado en el edificio Subijana, sito en la calle Nagusia, n.º 70, de Villabona (Gipuzkoa).

Cuarto.– La dotación inicial asciende a la cantidad de treinta mil (30.000) euros, cuyo desembolso es acreditado documentalmente en el expediente de inscripción registral, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 37.1.c del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

La dotación patrimonial se acredita como adecuada y suficiente para el cumplimiento de los fines fundacionales, de acuerdo con el artículo 12.1 de la Ley 50/2002, de 26 de diciembre, de Fundaciones, de aplicación en virtud de su Disposición Final 1.^a.

Quinto.– La representación, administración y gobierno de la Fundación se confía al Patronato, cuyos miembros desempeñarán sus cargos con carácter gratuito, de acuerdo con el artículo 9 de los estatutos fundacionales.

Sexto.– El Patronato inicial, conforme se establece en la escritura de constitución fundacional y en el artículo 10 de sus estatutos, estará integrado por:

Kargua <i>Cargo</i>		Iraupena <i>Vigencia</i>
Lehendakaria/ <i>Presidenta</i>	María Jesús Aranburu Orbeagoz andrea, (Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuaren Foru diputatu gisa/ <i>Diputada Foral del Departamento de Cultura y Euskera de la Diputación Foral de Gipuzkoa</i>).	Mugagabeal/ <i>Indefinida</i>
Lehendakariordea/ <i>Vicepresidenta</i>	Estibaliz Alkorta Barragan andrea (Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskarako zuzendari nagusi gisa/ <i>Directora General de Euskera de la Diputación Foral de Gipuzkoa</i>).	Mugagabeal/ <i>Indefinida</i>
Idazkaria/ <i>Secretario</i>	Joseba Iñaki Murua Jauregi jauna (Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko lehendakari gisa/ <i>Presidente de la asociación Euskal Herriko Bertsozale Elkartea</i>).	Mugagabeal/ <i>Indefinida</i>
Batzordekidea/ <i>Vocal</i>	Haritz Solupe Urresti jauna (Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sustapeneko eta Hedapeneko zuzendari nagusi gisa/ <i>Director General de Difusión y Desarrollo de la Diputación Foral de Gipuzkoa</i>).	Mugagabeal/ <i>Indefinida</i>
Batzordekidea/ <i>Vocal</i>	Xabier Huitzi Belamendia jauna (Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkatzuz/ <i>Representante de la Diputación Foral de Gipuzkoa</i>).	Mugagabeal/ <i>Indefinida</i>
Batzordekidea/ <i>Vocal</i>	Maixel Arrieta Galarraga andrea (Villabonako Udaleko alkate gisa/ <i>Alcalde del Ayuntamiento de Villabona</i>).	Mugagabeal/ <i>Indefinida</i>
Batzordekidea/ <i>Vocal</i>	Ludger Karl Paul Mees jauna (Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara errektoreorde gisa/ <i>Vicerrector de Euskera de la Universidad del País Vasco</i>).	Mugagabeal/ <i>Indefinida</i>

Guztiak onartu dituzte beren karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikulua araberaren onartu ere.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioari sailburuari dagokio fundazioaren eraketa inskribatze-ko espedientea agindu bidez ebatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 40. artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4. artikuluan eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 4. artikuluan agindutakoaren arabera.

Bigarrena.– Eskumena daukan pertsona batek abiarazi du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36. artikuluan eta ondorengoetan agindutako baldintzak bete dira. Kasu honetan, eraketa espedientean azaltzen diren arrazoiak Fundazioaren eraketan parte hartzen duten pertsona juridiko-publiko guztiei hedatzen zaizkiela interpretatzen da. Ebazpen honen

Todos y cada una de ellos han aceptado sus respectivos cargos conforme a las formas previstas en el artículo 12.1 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– Corresponde a la Consejera de Justicia y Administración Pública, mediante Orden, la resolución del expediente de inscripción de constitución de la Fundación, en virtud de lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco; el artículo 4 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 100/2007, de 19 de junio; y el artículo 4 del Decreto 472/2009, de 28 de agosto, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia y Administración Pública.

Segundo.– El presente expediente ha sido promovido por persona legitimada para ello, y al mismo se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos señalados en los artículos 6, 7 y 9 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y 36 y siguientes del Decreto 101/2007, de 19 de junio, que aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco. En este caso se interpreta que las razones expresadas en el expediente de constitución son extensibles a todas las personas jurídico-públicas que intervienen en la constitución de la Fundación. Dichas razones, mencionados en los

aurrekarietan azaldutako arrazoiek, fundazio baten bitartez interes orokorreko helburuak hobeto lortuko direla aintzat hartzen dute; ondorioz, nahikotzat baliosten dira.

Kontuan hartuz aipatutako arauak eta aplikagarri diren gainerako arau orokorrak,

Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuak haxe

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Villabonako (Gipuzkoa) MIntzola Fundazioa eta Patronatuaren hasierako osiera Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan gaurko datarekin eta F-250 zenbakiarekin inskribatzeko agintzea. Patronatuko kideak seigarren aurrekarian aipatzen dira eta guztiek espresuki onartu dituzte beren karguak.

Bigarrena.– Fundazio hori bere helburuekin bat datorren Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 1. sekzioan inskribatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu hau azkena da administrazio-bidean. Bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera; edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkideko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, hilabete biko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko azaroaren 12a.

Justizia eta Herri Administrazioiko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

antecedentes de la presente resolución, justifican que los fines de interés general se alcanzarán mejor a través de una fundación; las mismas se estiman suficientes.

Vistas las normas mencionadas y demás normas de general y pertinente aplicación,

La Consejera de Justicia y Administración Pública,

RESUELVE:

Primero.– Ordenar la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco, con esta fecha y bajo el número de F-250, de la constitución de la denominada Mintzola Fundazioa, de Villabona (Gipuzkoa) así como de la composición inicial del Patronato integrado por los miembros que figuran en el antecedente sexto, quienes han aceptado expresamente sus cargos.

Segundo.– Clasificar a dicha Fundación, en virtud de sus fines, en la Sección 1.ª del Registro de Fundaciones del País Vasco, conforme a lo dispuesto en el artículo 2 del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco.

Tercero.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante este Consejero de Justicia y Administración Pública, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de noviembre de 2009.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.